# PROGRAMA XEHATUA

## HAUTESKUNDEAK 2023

abotsanitz

# GAUZAK HOBETO EGIN DAITEZKE

## DIAGNOSTIKOA

Herritarrak Udala gero eta urrunago sentitzen duten erakunde bat da:

-Ez duelako ia inoiz erantzuten

-Itxita egotearen sentsazioa erakusten duelako

-Arazoak usteltzen uzten duelako, dagokion eran eragin gabe

-Edukirik gabeko balorazio oso positiboak egiten ditu beti, herritarrak entzun gabe.

abotsanitz

## ETA EGOERA HAU ERALDATU NAHI DUGU

Gure konpromisorik sendoena horretara bideratutakoa da:

-Lanketa modu berriak praktikan jarri nahi ditugu. Elkarkidetzan oinarri.

-Udala herritarrengana eramango dugu. Konfidantzako guneak sortu.

-Zer egin edo zer ez den egin azaldu eta zergatiak azalduz.Gardentasuna.

-Herritarrei eta eragileei udal tramitazioan laguntza emango zaio.

abotsanitz

# GURE OINARRIAK

| | |
|---|---|
| BERDINTASUNA | IGUALDAD |
| ASKATASUNA | LIBERTAD |
| JUSTIZIA | JUSTICIA |
| ELKARTASUNA | SOLIDARIDAD |

abotsanitz

# HAUTESKUNDE PROGRAMA

| | |
|---|---|
| Hondarribian bizi ahal izateko giltza | La llave para poder vivir en Hondarribia |
| Gizarte Kohesiorako giltza | La llave para la cohesión social |
| Herri Nortasuna sendotzeko giltza | La llave para reforzar nuestra identidad |
| Herritarren osasuna bermatzeko giltza | La llave para vidas saludables |
| Herritarrak asetuko dituen kudeaketarako giltza | La llave para una gestión eficaz |
| Alardearen gatazka desblokeatzeko giltza | La llave para desbloquear el conflicto del alarde |

abotsanitz

# Hondarribian bizi ahal izateko giltza

ETXEBIZITZA

MUGIKORTASUNA

IRISGARRITASUNA

HIRITARTZEA

EREMU PUBLIKOAK

EKONOMI AKTIBITATEAK

Norberaren herrian bizi eta zahartu nahi izatea desira normala da baina geroz eta enpresa zailagoa bihurtu da Hondarribian, kasu askotan ezinezkoa. Inork bere borondatearen kontra hiritik alde egin ez dezan lan egingo dugu.

abotsanitz

# ETXEBIZITZA

Babes Ofizileko etxeak lehenetsi, bereziki  alokairuzkoak.

Sektore bakoitzean dagokion babestutako etxebizitza kopuruari eutsi.

Udal Promozioko babestutako etxeak lehenetsi.

Etxebizitza publikoak finantzatzeko alternatibak bilatu, transferentziei aurre egiteko.

VT-en erregulazio xehatua jasoko duen ordenantza egin.

Muliateko udal partzelan helduentzako etxebizitza komunitarioak eraiki.

Kosta kalea eta mendi magaleko etxebizitzen proiektua burutu.

Etxebizitzak alokatzeko sustapen programan martxan jarri.

abotsanitz

# MUGIKORTASUNA

- Gipuzkoako foru aldundiari eskatu aireportuko errepideko bidegorria zatia osa dezan.
- Bizikletentzako aparkaleku estaliak jarri.
- Bizikletentzako aparkaleku beharren azterketa eta mapeoa egin.
- Autobusak aparkatzeko leku bat egokitu eta jendea non utzi behar duten seinaleztatu.
- Hiri-autobusa behar-beharrezko zerbitzua izendatu.
- Hiri-autobuserako inbertsioak (Ibilgailua, geltokiak, edo seinalizazioa, edo…) egin.
- Muliate I eta II-ko garajeetan ispiluak eta zamalanentzako gune bat jarri.
- Zezen Plazan lur azpiko aparkalekuaren bideragarritasuna aztertu.
- Hondarribian disuasio-aparkaleku bat ezarri.
- Alde Zaharreko aparkalekuaren gabezien azterketa eta neurri zuzentzaileak jarri.
- Autokarabanentzako aparkalekua eta zerbitzu gunea sortu.

abotsanitz

# IRISGARRITASUNA

- Mugikortasun urritasuna dutenentzako neurriak; ibilbide irisgarri bat.
- Zebrabidearen argiztatze-sistema berria.
- Donostia eta Santiago kaleen arteko igogailuaren proiektua gauzatu.
- Biteri eta Txiplao arteko zubia egin.
- Europa pasealekutik hondartzara hurbiltzeko pasabide irisgarriak luzatu.
- Alde Zaharreko sarreren irisgarritasuna hobetu eta ibilbide irisgarri bat diseinatu.
- Pasaia eta inguruko kaleen irisgarritasuna hobetzea.

abotsanitz

## HIRITARTZEA

- Arrantzale Auzoko hirigintza proiektua gauzatu.
- Txiplao-Santa Engraziako eremua gaurkotu.
- Higer bidean hobekuntza lanak; espaloia falta den lekuan jarri.
- Guadalupeko iturriaren potabilizazioa egin.
- Arma plazan Iturri bat jarri.
- Arkollan, landa-auzoetan eta asto-bidean hidranteak jarri.
- Arkolla auzoko argiteria eta oinezko ibilbide sarea sortu.

abotsanitz

# EREMU PUBLIKOAK

- Satarka eskolako arrapala eta aterpea egin.
- Ospakizun zibilak egiteko eremu bat sortu.
- Haur parke txiki bat Portuan eta aparatu batzuk Arrantzale auzoan.
- Errebelinean naturan integratutako (egurrezko) haur parke bat egin.
- San Nikolas baluartearen goikaldea ireki eta parke publiko bat sortu.
- Arkitektura lehiaketa bat egin Hondartza eremuko haur parkea estaltzeko.
- Hondartzan estalpe bat jarri, neguko erabiltzaileek non aldatu eduki dezaten.
- Puntalean eta Bidasoa pasealekuan, bainurako erabiltzen diren arrapaletan soka-barandak jarri.
- Kai zaharreko hondartzan dutxak jarri.
- Txakurrentzako bi aisialdi gune txiki egokitu, Muelan eta San Marko parkean.
- Txakur gorotzak botatzeko ontziak jarri, baita non dauden adierazteko seinaleak ere.

abotsanitz

# EKONOMI AKTIBITATEAK

Laborantzara bideratutako lur publikoak  eskuratu.

Estalitako merkatuaren proiektua gauzatu.

Gertuko eta kulturari lotutako ekimenen alde egin.

Bidasoa Oarsoko Industrialdea erakundearekin bat egin.

Ekonomia sozialeko jarduketak bultzatu eta lagundu.

Herriko ekoizleen produktuak merkaturatzeko manufaktura sektorea sortu.

Bertako komertziotan Kontsumoa sustatzeko bonoak atera.

Herrian zehar WIFI sare publikoa jarri.

abotsanitz

# Gizarte kohesiorako giltza

GIZARTE ZERBITZUAK

ELKARBIZITZA

BERDINTASUNA

GERTUTASUNA

Ongizate sisteman eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunean sinisten dugu irmoki. Herritarrez arduratuko den udala nahi dugu, trabak jarri ordez erraztasunak jarriko dituena, eta jatorri, erlijio, pentsatzeko modu, genero edota adin arrazoiengatik inor baztertuko ez duena.

abotsanitz

# GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte zerbitzuen saila indartu.

Gizarte Zerbitzuen departamentuko beharren diagnostikoa egin.

Gizarte zerbitzuen Plan estrategikoa egin.

Hondarribiko gizarte zerbitzuen karta burutu eta sozializatu.

Etxez etxeko laguntza programa zabaldu.

abotsanitz

## ELKARBIZITZA

Errolda soziala modu egokian kudeatu.

Hondarribia Harrera Herria izendatu.

Itun soziala garatzeko teknikaria eta diru-partida jarri.

Herri zapalduekin kooperazioa sustatu.

abotsanitz

# BERDINTASUNA

- Puntu ilunen proiektua garatu.
- Berdintasun teknikaria kontratatu.
- Berdintasun Saila sortu.
- Berdintasun Planaren gauzatze maila aztertu eta Plan berria egiteko pausuak eman.
- Berdinsarean sartu.
- Herriko elkarteetan eraso matxisten aurkako protokoloak egitea sustatu.

abotsanitz

## GERTUTASUNA

Informazio-panel berriak jarri Kandido Saseta plazan eta Alde Zaharrean.

BAZ eredu berri bat eraiki. Gestio gehienak leku berean egin ahal izateko.

Txingudi Zerbitzuetako langile baten arreta zerbitzua bermatu BAZ bulegoan.

Kudeaketak egiteko orduan arrakala digitala gainditzeko laguntzak jarri.

abotsanitz

# Herri nortasuna sendotzeko giltza

- EUSKARA
- ONDAREA ETA MEMORIA
- INGURUMENA
- SORMEN HIRIA
- AISIA

Historia handiko herria da Hondarribia, eta gertatutakoen testigu diren ondare-elementu anitz ditugu balioan jarri beharrekoak. Hondarribiarron nortasuna, gure arkitekturak, arte eta literaturak, gure bizimoduak, elkar-bizitzak,ohiturak, sinesmenek, balore-sistemak eta gure hizkerak osatzen dute.

abotsanitz

# EUSKARA

Hondarribiko udala UEMAn sartu, eta dagozkion bete-beharrak bete.

Euskararen erabileraren ikerketa kualitatiboa egin.

Euskararen erabilera sustatzeko ekintzak burutu.

Eragin linguistioaren ebaluazioa (ELE) arautuko duen ordenantza sortu.

Nerabeei zuzendutako ekintza programa euskaldun bat eraiki.

Euskarazko literatur eta txiste grafikoen ekimenak sustatu.

Hondarribiko Euskarazko musika- taldeei emanaldietarako espazioak eskaini.

abotsanitz

# ONDAREA ETA MEMORIA

- Udal ondasunen inbentarioa egin.
- Itxi egin diren auzo-bideen azterketa egin eta hauek  berreskuratu.
- San Telmo, Ramery eta Polborina ireki eta edukiz bete.
- Mugarriak garbitu.
- Herriko mugak azaltzeko gazte-programa bat martxan jarri.
- Goikoerrota aterpetxea balioan jartzeko proiektua aurrera eraman.
- Itsasoari buruzko murala egin. Herriko artisten artean Hondartza inguruko pareta huts bat margotu.
- Baserrien babesa bermatzeko protokolo bat.
- Hondarribiko usadio eta egiteko moduak ez galtzeko trasmisio bideak sortu.
- Hondarribia eta frankismoa ikerketa beka sortu.
- Hondarribian gelditzen diren sinbolo frankistak ezabatu.

abotsanitz

# INGURUMENA

- Herri eta gizarte iraunkorrak lortzeko kontzientziazio programak sortu.
- Permakulturaren oinarriak sozializatzeko programa martxan jarri.
- Eraikin publikoetan eguzki plakak jartzeko programa kudeatu.
- Ibilgailuentzako karga elektriko postuak jarri.
- Garbigunea lekuz aldatu
- Ibai eta Itsasbazterretan hondakinak ez jausteko babes neurriak.
- Itsasoari buruzko murala. Herriko artisten artean Hondartza inguruko pareta huts bat margotu.
- Jaizkibel-Aiako harriak korridore ekologikoa babestu.
- Padurak babestu.
- Hondarribian Udal basozaina izendatu.
- Zuhaitzen kudeaketa zuzena egin.

abotsanitz

# SORMEN-HIRIA

“Kultura auzoetara” programa sortu eta kultur eta gizarte-eragileekin batera kudeatu.

Sorkuntzarako beharrak parte-hartze prozesu bitartez identifikatu.

Sormen espazioak egokitu.

Musika Eskola publiko bihurtzeko alternatiba burutu.

Irakurketa erraza sustatzeko programa abiatu.

Liburuak partekatzeko (crossbooking) eta irakurzaletasuna sustatzeko bi gune egokitu kalean.

Artxiboa leku duin eta egoki batean kokatu.

Herriko kultur eragileekin elkarlana sustatu.

# AISIA

Erabilpen pribatiborako kale erabileraren kudeaketa egokia egin; herritar eta aktibitateen arteko adostasun minimoak bilatu.

Herriko jaietan haurrentzako ekintzetan euskaraz lan egingo duten begirale gehiago jarri.

Gazteentzako, ikasturtean zehar garatuko den programa zabal bat (zinea, antzerkia, musika...) osatu.

Auzoetako jaiak sustatu, berreskuratu eta berriei bide eman:

- Mendeluko jaiak
- Madalengo jaiak
- Amuteko jaiak
- Santiagotxoko jaiak
- Jaitzubiko jaiak
- Muliateko jaiak

abotsanitz

# Herritarren osasuna bermatzeko giltza

OSASUN-SISTEMA

ADIMEN-OSASUNA

OSASUN FISIKOA

Osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez bakarrik afekziorik edo gaixotasunik eza.  Udalak funtsezko zeregina du osasunari dagokionez; izan ere, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa da eta horregatik Osakidetzaren aurrean herritarren beharren alde lan egiteko ardura du.

abotsanitz

# OSASUN SISTEMA

Kirofanoak Handitu, Berritu, Hobetu

Hondarribiko anbulatorioan espezialidade berriak gehitu.

# ADIMEN-OSASUNA

- Prebentzio komunitarioa eguneratu eta indartu.
- Kontsumo kaltegarrien prebentziorako programak indartu.
- Jarrera desorekatuak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko programetan sakondu eskolekin elkarlanean.
- Gorputz-normatiboak/Irudiak eragiten dituen desorekak ekiditeko lanketa sakona egin.
- Apustu etxerik gabeko herria izaten jarraitzeko neurriak hartu.
- Zahartze aktiboa sustatzeko ekimenak/formakuntzak prestatu.
- Kasino Zaharreko zerbitzuak berreskuratu eta martxan jarri.
- Pertsona nagusien isolamendua ekiditeko baliabideak jarri

abotsanitz

# OSASUN FISIKOA

- Hondartza eremuko lurren desafektazioa eskatu eta udal lurren ondarea bihurtzeko tramiteak egin.
- Hondartza kiroldegiko kudekatearen hausnarketa mahai gainean jarri.
- Hondartza kiroldegiko Tarifak egokitu gipuzkoako tarifen batazbestekoaren parera.
- Hondartza Futbol zelaiaren obra burutu.
- Hondartza kiroldegiko futbol zelai eta atletismo pistako harmailetan estalpea jarri.
- Skate parkea berritu.
- BMX zirkuituan txirrinda pista egokitzeko obra burutu.
- Rokodromo bat aire librean jarri.
- Mendeluko kirol gunea berritu, kirol anitzeko pista egin.
- Amuteko frontoirako estalpea eta kirol guneko zorua berritu.
- Bizikletak garbitzeko eremuak jarri.

abotsanitz

# Herritarrak asetuko dituen kudeaketaren giltza

PARTE-HARZE PROZESUA

UDAL FUNTZIONAMENDUA

UDAL EGITURA

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioak, Irekia, Gertukoa, Gardena eta Etorkizunera begiratzen duena izan beharko luke. Horretarako eraldaketa bat behar du.

abotsanitz

# PARTE-HARTZE PROZESUA

Aurrekontu parte-hartzaileen programa gauztau.

Torralba Enea etxerako parte hartze prozesua egin.

San Marko parkerako parte hartze prozesua burutu.

abotsanitz

## UDAL-FUNTZIONAMENDUA

- Herri eragileentzako diru-laguntza sistema justua diseinatu.
- Aurrekontu errealak lortzeko barne-metodologia irauli.
- Kontratazio-plan egoki bat diseinatu.
- Udalak modu estrukturalean eman behar dituen zerbitzuak “munizipalizatu”
- Informazio eskubidea urratuko ez dela bermatu.
- Sartutako idatzi edo eskaerei erantzungo zaiela bermatu.
- Udal sailen arteko komunikazio eta koordinazioa egokiagoa bermatu.
- Bizikidetza arazoei konponbidea emateko mahai interdepartamenatala eratu.

abotsanitz

# UDAL-EGITURA

Langileentzako etengabeko  formakuntza sustatu.

Lanpostuen balorazioa egin.

Lanpostuen egitura eguneratu eta indartu.

Aldibaterakotasun tasa %8 azpitik egoteko neurriak hartu.

Lanpostuen deialdi publikoak burutu.

Udal lan-poltsak gauzatu.

Udaleko langileek arreta hurbila eskaintzea lortzeko neuririak jarri.

abotsanitz

# Alardearen gatazka desblokeatzeko giltza

Elkarrizketa bultzatu.

Gatazkaren kudeaketa emozionalean sakondu.

Alardea hondarribitar guztion ondarea da.

Pentsaera ezberdina dutenen arteko errekonozimendua sustatu.

Herria berriz kohesionatu.

abotsanitz